



Zorione Etxezarraga, Haurreskolak Partzuergoko gerenteari,

Atzo Haurreskolak Partzuergoko langileoi bidalitako mezuari erantzuteko helburuarekin idazten dizugu **STEILAS** sindikatutik.

Eskutitz horretan egindako baieztapen honekin bat egiten dugu: "...pandemia egoera honetan jardutea konplexua izaten ari da. Guztiontzat."

Horren aurrean, galdera honakoa da: zergatik? Alde batetik, haurreskola askotan kontingentzia planak ezin direlako aurrera eraman, nahiz eta lan handia egin duten hauek moldatzen (sarrera-irteerak, bazkalorduak, burbuilak ezin sortu, materiala garbitzeko denbora falta...), enpresak ez dituelako ordezkapenak betetzen (mugimenduen eta ordu estren bitartez bete nahian ari zarete, baina egoera ezin da horrela kudeatu). Bestetik, segurtasun materiala haurreskoletan bermatuta dagoela esan arren, kasu askotan hezitzaileek aurreratu behar izan dutelako dirua hori erosteko. Diru falta horrek, gainera, beharrezkoa den bestelako edozein material erostea ezinezkoa egiten du.

Honetaz gain, matrikulazio jaitsiera izugarriaren aurrean, zer egin du enpresak? Ezer gutxi! Ezin dugu ulertu gai honekiko erakutsi duzuen paralisia. Haurreskolak Partzuergoko arduradunek besoak gurutzatu dituzue. Bitartean, hezitzaile eta kudeaketa langileei elkarlana eskatzen diezue, baina eskubideak urratu eta arauak ez errespetatzeaz gain, murrizketak besterik ez dituzue aplikatu.

Hezitzaile eta kudeaketako langileak beraien onena ematen ari dira familien aurrean, profesional bikainak direla erakusten ari dira eta ikuspuntu pedagogikoa oso kontutan dute eguneroko lanean. Baina, gerentziaren kudeaketa aldrebesak eraginda, nekatzen hasi dira dagoeneko. Baliabide faltak ondorioak ekarriko dituela argi dugu eta, pandemiaren ondorioak aitzakia bezala erabilia, beldur gara ez ote zareten Haurreskolak Partzuergoaren etorkizuna kinka larrian jartzen egongo.

Era berean, haurreskoletan ratioa 1:3koa dela aipatu zenuen zure mezuan. Hala ere, ongi dakigu hori ez dela haurreskola gehienen errealitatea, batzuetako baizik. Zerbitzu publikoa garen heinean, ezinbesteko zerbitzua eskaintzen dugu haurreskola horietan. **STEILAS**etik beti esan dugun bezala, haurreskola bakoitzaren ratioak banan-banan begiratu behar dira lekuan lekuko beharrak zeintzuk diren jakiteko. Datu horrek, horrela aurkeztuta, ez du errealitate zintzoa adierazten.

Hau guztia esanda, **STEILAS**etik zera eskatu nahi dizugu:

- Ordezkapenak lehen egunetik betetzea.
- Beharrezkoak diren hezitzaileak eta kudeaketa langileak bermatzea kontingentzia planak bere osotasunean bete ahal izateko eta familiei kalitatezko zerbitzua emateko.
- Matrikulazio kanpaina publikoak burutzea.
- Alde sozialarekin negoziazioa hastea, Hezkuntza Saileko ordezkariarekin batera.

Euskal Herrian, 2020ko urriaren 7an.

**steilas**

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba 📞 945 14 11 04  
[araba@steilas.eus](mailto:araba@steilas.eus)

Bizkaia 📞 944 10 02 98  
[bizkaia@steilas.eus](mailto:bizkaia@steilas.eus)

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00  
[gipuzkoa@steilas.eus](mailto:gipuzkoa@steilas.eus)

Nafarroa 📞 948 21 23 55  
[nafarroa@steilas.eus](mailto:nafarroa@steilas.eus)

